

**LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA BANCO SABADELL,
S.A. BANKUAREN ARTEAN, MUGA-ZERGEN NAZIOARTEKO
EGOERA BERRIAREN INPAKTU EKONOMIKOARI AURRE
EGITEKO EAE-KO ENPRESA-SEKTOREARI FINANTZA-BABESA
EMATEKO PROGRAMA TRESNAZ HORNITZEKO**

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

BILDU DIRA:

Alde batetik, José Enrique Corchon Alvarez jauna, Finantza Politikako eta Aurrekontuetako sailburuordea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta haren ordezkari gisa,

Bestetik, Iñaki Navarro Cameo jauna, ***4619** NANarekin, BANCO SABADELL, S.A. bankuaren izenean eta haren ordezkari gisa, horretarako ahalmen nahikoa baitu,

ADIERAZTEN DUTE:

Estatu Batuetako administrazioaren muga-zergen plan berriak eta horri egin dizkieten aldaketek disrupzioa eragin dute munduko merkataritzan, eta ziurgabetasun handia ekarri dute, zuzenean muga-zergen eraginpean dauden enpresa guztiek jasango dituzten ondorioen bilakaerari lotuta.

Nahiz eta nazioarteko merkataritza zuzenduko duten arauak zehaztuko dituen markoa oraindik ez den argitu, Estatu Batuen muga-zergen hasierako planari etengabe egin dizkieten aldaketak direla eta, ez dago zalantzarik ukitutako eragile guztiek beren egungo eta etorkizuneko ekoizpen-jarduera egoera berrira egokitu beharko dutela.

Horregatik guztiagatik, egun ditugun eta ziurrenik luzaroan izango ditugun zalantzak gorabehera, komenigarritzat jo da erakunde publikoek zenbait ezohiko tresna hornitzea egoera horrek ekar ditzakeen zuzeneko ondorio kaltegarriak arintzeko, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei marko

berrira gutxika egokitzen laguntzeko ere, likidezia emateko tresnak ezartzearen bitartez.

Tresna horietako bat finantza-babesa emateko programa bat da, gehienez 450 milioi euroko zuzkidura izango duena maileguetan. Muga-zergek ukitutako eragileen likidezia-beharrei eta zirkulatzailerik finantzaketari aurre egitea izango du xede.

Elkargi EBBk, laguntza emateko programaren erakunde laguntzaile den aldetik, maileguei berme osoa emango die, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, kontrabermea.

Beharrezkotzat jo da hitzarmen bat sinatzea Eusko Jaurlaritzaren eta, BANCO SABADELL, S.A. bankuaren artean finantza-harreman egokiak ezartzeko, EAEko enpresa-sektoreari finantza-babesa emateko programaren maileguak emateko, muga-zergen nazioarteko egoera berriaren inpaktu ekonomikoari aurre egin diezaion, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGO KLAUSULA: HITZARMENAREN XEDEA

Muga-zergen nazioarteko egoera berriaren inpaktu ekonomikoari aurre egiteko EAEko enpresa-sektoreari finantza-babesa emateko programaren maileguak formalizatzeko prozedura eta maileguen baldintzak zehaztea da hitzarmen honen xedea.

BIGARREN KLAUSULA: FINANTZA-ERAGIKETEN BALDINTZAK ETA EZAUGARRIAK

1.- Muga-zergen nazioarteko egoera berriaren inpaktu ekonomikoari aurre egiteko EAEko enpresa-sektoreari finantza-babesa emateko programan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte enpresa eta pertsona onuradunek eta finantza-eragiketek.

Hitzarmen hau sinatu duen, BANCO SABADELL, S.A. bankuak izapideak egin ditzan, "Abala baimentzeko agiriaren" bidez baliozkotuko da baldintza horiek betetzen diren; eta Elkargi EBBk emango du agiri hori, CE1 eranskineko ereduaren arabera.

BANCO SABADELL, S.A. bankuak, dagokion autonomiaren esparruko prozeduren arabera eragiketa behar bezala aztertu ondoren, mailegua formalizatu eta ordainduko du Elkargi EBBren "Abala baimentzeko agiria" (CE1 eranskina) jaso ondoren. Dokumentu horrek bilduko ditu maileguaren

baldintzak eta ezaugarriak (enpresa edo pertsona onuraduna, zenbatekoa, epea, amortizazioa eta interes-tasa).

Finantza-erakundeak autonomia izango du mailegua emateko edo ukatzeko, bere jardueran erabili ohi dituen analisi- eta ebazpen-irizpideak aplikatuta.

2.- Hitzarmen honen babesean emandako finantza-eragiketen baldintzak hauek izango dira:

Tresna: mailegu amortizagarria.

Gehieneko interes-tasak: Euriborra sei hilabetera, gehi gehieneko diferentziala (% 0,75). Ondorio horietarako, Euribor gisa ulertu behar da Reuterren EURIBOR= pantailaren bidez (oinarria: Act/360) edo, hori desagertuz gero, informazio bera eman dezakeen beste pantaila baten bidez lortutako bankuen arteko interes-tasa. Tasa hori sei hilabeterako gordailuetarako da, eta eragiketaren dataren edo berrikuspen-dataren aurreko bigarren egun baliodunean kalkulatu da. Ez da biribiltzerik onartuko.

EURIBOR indizearen balioa zerotik beherakoa bada, interes-aldi bakoitzean aplikatu beharreko tasa zehatza jakiteko egin behar diren kalkuluen ondorioetarako, dekretu honetan adierazitakoaren arabera, EURIBOR zero (0,0) dela ulertuko da.

Mailegu-eragiketen ezaugarriak: bost urte gehienez, eta aukerako bi gabealdi gehienez.

Likidazio-aldizkakotasuna: hiru hilean behin egingo da interes- eta amortizazio-kuoten likidazioa. Interes-tipoa sei hilean behin berrikusiko da.

Komisioak: maileguez ez dute inolako komisio edo gastu gehigarriarik izango finantza erakundeari emateko. Mailegu-hartzaileak aurretiaz ezereztu edo amortizatu ahal izango du mailegua, inolako kosturik gabe.

3.- Maileguen zenbatekoa tarte hauetan egongo da:

- 1) 100.000 € eta 1.500.000 € artean, enpresa txiki eta ertainentzat eta enpresa handi hautagarrientzat.
- 2) 30.000 € eta 120.000 € artean, banakako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat.

4.- Enpresa edo pertsona onuradunak eman zaion maileguaren zenbateko osoa izango du erabilgarri. Finantza-erakundeak ezin izango ditu saldoak atxiki edo pignoratu, ezta emandako maileguaren onuradunak eskura dezakeen zenbatekoa murrizteko antzeko figurarik aplikatu ere.

5.- BANCO SABADELL, S.A. bankuak hitzarmen honetako maileguak tresnaz hornituko ditu poliza-ereduetan, baldin eta horrekin ez badira aldatzen maileguaren onuradunari hitzarmen honetan ezarritako baldintza ekonomiko garrantzitsuak.

6.- BANCO SABADELL, S.A. bankuak kreditu-eragiketak ematean bere praktikak aplika ditzakeen arren, konpromisoa hartzen du kreditu-eskatzaileei objektibotasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzeko.

HIRUGARREN KLAUSULA: ERAGIKETEN BERMEA

Emandako mailegu-eragiketa guztiak ELKARGI EBBk bermatuko ditu.

Mailegua eman baino lehen, BANCO SABADELL, S.A. bankuak Elkargi EBBk emandako “Abala baimentzeko agiria” eskatuko du.

LAUGARREN KLAUSULA: HITZARMENAREN IKUSKAPENA ETA INFORMAZIOARI LOTUTAKO BETEBEHARRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, hitzarmena behar bezala aplikatzen dela zaintzeko, beharrezkotzat jotzen diren egiaztapenak, ikerketak eta ikuskapenak egingo ditu enpresa eta pertsona onuradunen eta BANCO SABADELL, S.A. bankuaren aurrean. BANCO SABADELL, S.A. bankuak hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, hitzarmena baliogabetu egingo da. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak beste legezko jarduketa administratibo batzuk egin ahal izango ditu.

Hitzarmen honetan jasotako eragiketak izapidetzean gorabeheraren bat gertatuz gero, BANCO SABADELL, S.A. bankuak horien berri eman beharko dio Ogasun eta Finantza Sailari.

Nolanahi ere, Ogasun eta Finantza Sailak hitzarmena modu egokian kudeatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango dio BANCO SABADELL, S.A. bankuari.

BOSGARREN KLAUSULA: LURRALDE-EREMUA ETA IRAUPENA

Hitzarmen honen lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

Hitzarmena sinatzen den egunetik 2025eko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta horren babespean egindako finantza-eragiketetan aplikatuko da.

SEIGARREN KLAUSULA: SALAKETA

Hitzarmena salatzeko nahikoa izango da alderdietako batek klausularen bat ez betetzea.

ZAZPIGARREN KLAUSULA: PUBLIZITATEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta BANCO SABADELL, S.A. bankuak konpromisoa hartu dute hitzarmenari behar den publizitatea emateko, maileguen enpresa eta pertsona onuradunei dagozkien alderdi guztiei dagokienez.

BANCO SABADELL, S.A. bankuak, bestalde, bere publizitatean eta kontratuen klausuletan berariaz aipatu beharko du Muga-zergen nazioarteko egoera berriaren inpaktu ekonomikoari aurre egiteko EAEko enpresa-sektoreari finantza-babesa emateko programa.

ZORTZIGARREN KLAUSULA: DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Hitzarmen honetan aurreikusitako datu-bilketa, -tratamendu eta -lagapen guztietan, aldeek konpromisoa hartuko dute 3/2018 Lege Organikoa zorrotz betetzeko (abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa).

BEDERATZIGARREN KLAUSULA: IZAERA ETA JURISDIKZIOA

Hitzarmen hau administratiboa da, eta Ogasun eta Finantza Sailari dagokio hitzarmenaren edukia eta horren ondoriozko alderdiak interpretatzea.

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOA

BANCO SABADELL, S.A.

Izpta.: José Enrique Corchon
Alvarez

Izpta.: Iñaki Navarro Cameo

CE1 ERANSKINA

ABALA BAIMENTZEKO AGIRIA

1) ERAKUNDE ABAL-EMAILEA:

2) BANAKAKO ENPRESABURU / AUTONOMO / ENPRESA ONURADUNAREN DATUAK

Sozietatearen izena / Izena	
Egoitza soziala	
IFZ/IFK	
EJSN	
Jardueraren deskribapena	

3) ABALATUTAKO FINANTZA-ERAGIKETA

Eragiketa mota	
Baimen-zenbakia	
Eragiketaren zenbatekoa	
Baimen-data	
Interes-tasa	
Muga-eguna	
Printzipalaren gabealdia	Bai/Ez
Finantza-erakundea	

4) BESTELAKOAK

Bestelako ohar batzuk	
-----------------------	--

Honen bitartez ziurtatu nahi dut (erakundea) EBBk baimena eman duela (2. epigrafean deskribatutako enpresari/pertsonari) abala eman eta gauzatzeko, eranskin honetan azaldutako baldintzei jarraituz, hori guztia Muga-zergen nazioarteko egoera berriaren inpaktu ekonomikoari aurre egiteko EAEko enpresa-sektoreari finantza-babesa emateko programan araututako baldintzen arabera.

(ERAKUNDE ABAL-EMAILEA) EBB

Izpta.